

## La Hormiga Atomica, Iruñeko liburutegi politikoa

La Hormiga Atomica, Iruñean dagoen liburutegi bat da, empresa politiko bezala definitzen dutena sortzaileek. Bertan arlo politiko zein sozialari buruzko liburuak eta testuak topatu daitezke. Liburuaz aparte hitzaldiak, irakurle taldeak sortzeko lekua, prentsurrekoak emateko lekua... eskaintzen dute baita edonork gauzak antolatzeko lekua. Orain proiektu handitu nahi dute eta horretarako dirua biltzeko kanpaina martxan jarri dute. Guzti honetaz eta proiektuaren zehetasunak ezagutzeko beraiekin mintzatu gara.

### **Azaldu pixka bat zer den 'La Hormiga Atómica' proiektua eta noiz sortu zen?**

La Hormiga Atómica Liburuak empresa politiko bat da. Hasieran liburudenda bezala hasi zen, hitzaldietara liburuak eramatzen eta hor bertan saltzen. Gero lokal bat aurkitu genuen eta kafetegia prest zegoen. Eguneroko egoera politiko zein soziala astertzeko testuak Iruñeko jendeari hurreratsea zen proiektuaren asmoa. Behin lokal batean finkatutak geundela hasi ginen geure hitzaldiak antolatzen, liburuen aurkezpenak, ihardunaldiak etab. Nafarroan egon diren greba orokor guztieta partea hartu dugu, alde batetik lokala ixten, baina baita ere beste ekimenak bultzaten, adibidez, bzipiketea.

### **Non dago kokatuta liburutegia?**

Iruñeko alde zaharrean. Hiriko zentroa da, ez bakarrik geografikoki, baizik eta politikoki ere. Hortik pasa dira azken urteotako mugimendu interesgarrienetarikoak (Euskal Jai, piztera, M15, Herri harresia, eta). Baita ere, zonalde bat da, non, azken urteotan udalak eraman du espekulazio politika bat. Akademian esaten den bezala, gentrifikazio prozesu bat habian da Hiriko erdialdean, non 10 baino frankizia gehio ireki dute, Burger King-arekin batera.

### **Zergatik jarri zenuten martxan liburutegi hau?**

Eztabaidarako gune bat izateko. Gure ustez, ezinbestekoa da eztabaida eta pentsamendua sustatzea lan politikoa aurrera eramateko. Historian adibide anitz aurkitzen dugu non, iraultzak baino lehen bazegoen jendea liburuak idazten, eztabaida gordinetan. Adibidez, Errusiar iraultza baino lehen, baino baita ere Euskal Herrian 60-70eko hamarkadetan eman zen borraka zikloan (antinuklearak, grebak, etab)

### **Zer eskaintzen duzue liburutegian, liburuaz aparte hitzaldiak, ekimen kulturalak... antolatzen dituzue?**

Gaur egun mota guztiako ekitaldiak antolatzen dira liburudenden. Liburu aurkezpenak, asanbladak, hitzaldiak, irakurle taldeak, prentsurrekoak, etab. Haietako asko ez dira La Hormiga Atomicaren partez antolatzen, baizik eta gure esparrua irekia dago mundu guztia erabili dezan.

### **Ikusi dugu dirua biltzeko kanpaina bat jarri duzuela martxan, zertarako eta nola parte hartu daiteke?**

Abenduan proiektua mutazio sakon bat jasoko du. Lokal berri eta haundiago batera aldatuko gara. Kooperatiba bat sortuko dugu eta lagun gehio sartuko dira proiektuan lan egitera. Lokal berri honetan liburu gehiago sartuko ditugu, baina baita ere eskeiniko ditugu bazkariak, ardoak, jostailu sexualak, etab. Baita ere edukiko dugu erabilera anitzeko areto bat. Gela hori nahi dugu mundu guztiarentzako toki ireki bat egitea, non, gure kultur programzio propioa izan, baina baita ere, non edonor antola dezaken ekitaldi kulturalak edota politikoa (bilerak, antzerkiak, etab).

Areto hori atontzeko crowdfunding kanpainia bat abiatu dugu, 20.000 euro eskatuz. Diru horrek pareta margotu, lehioak konpondu eta banaketa ez-iraunkorrik eraikitzea ahaleginduko gaitu.